

Itsasoko Araubide Bereziko

LANGABEZIAKO PRESTAZIOEN ETA SUBSIDIOEN BATERAGARRITASUNARI BURUZKO

Gida.





AURKIBIDEA

- **Sarrera.**
- **Langabeziako prestazio kontributiboen edo subsidioen bateragarritasuna:**
 - Lanaldi partzialeko besteren konturako lan ordainduarekin.
 - Besteren konturako lanaldi osoko lanarekin, enplegua sustatzeko programaren batean bateragarritasuna ezarrita dagoenean.
 - Prestatzen ari diren langileak ordezkatzeko programa baten esparruan sinatzen dituen lan-kontratuekin.
 - Gizarte-lankidetzako lanekin.
 - Arduraldi partziala dakarten ordaindutako kargu publiko edo sindikaletan hautapenez edo izendapenez jardutearekin.
 - Lan-kontratua azkentzeagatik dagokion legezko kalte-ordainarekin.
 - Sozietate bateko batzarrera kontseilari gisa joate hutsagatik zenbatekoak edo dietak kobratzearekin.
 - Lanerako prestakuntzako ekintzetara joateagatik edo ikasketa-planaren barruko erakunde publiko edo pribatuetan praktikak egiteagatik lortzen diren beka eta laguntzekin, erakunde horien eta dagokion ikastetxearen arteko lankidetzak-esparruan gertatzen badira.
 - Edozein administrazio publikok emandako gutxieneko errentak, gizarte-soldatak edo gizarte-laguntzako antzeko laguntzak jasotzearekin.
 - Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko diru-esleipenarekin.
 - Erretiro partzialeko pentsioekin eta gizarte segurantzaren pentsio edo prestazio ekonomikoekin, baldin eta prestazioa eragin zuen lanarekin bateragarriak izan baziren.
 - Espainiarra ez den estatu batek aitortutako eta ordaindutako pentsioekin.
- **Langabeziako prestazioen bateragarritasuna:**
 - Norberaren konturako lanarekin.
- **Langabeziako subsidioen bateragarritasuna:**
 - Besteren konturako lanarekin, 52 urtetik gorako langabeentzat.
- **Araudia.**

SARRERA

Oro har, langabeziako prestazioa edo subsidioa kobratzea bateraezina da lanarekin, besteren konturako lana izan nahiz norberaren konturakoa, baita Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak eskuratzearekin ere, salbu eta horiek prestazioa edo subsidioa sortu zuen lanarekin bateragarriak izan badira.

Prestazioa edo subsidioa etetea edo iraungitzea eragiten duen egoeraren bat gertatzen denean, zuk ez badiozu Itsasoko Gizarte Institutuari (IGI) horren berri ematen eta prestazioa behar ez bezala jasotzen jarraitzen baduzu, arau-hauste larritzat hartuko da. Arau-hauste hori prestazioa edo subsidioa iraungitzearekin zigortuko da.

Prestazioa edo subsidioa etetea edo iraungitzea eragiten duen egoeraren bat gertatzen denean, jakinarazi helbide honetan:

- Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoa, “Hiritarrak/Itsasoko Araubide Berezia” atalean, “(REM) baja hartu edo langabezia-egoera aldatu izana jakinarazteko” zerbitzua erabiliz, ziurtagiri digitalarekin, NAN elektronikoarekin edo cl@ve iraunkorrarekin sartuta.
- Itsasoko Gizarte Institutuaren probintzia-edo toki-zuzendaritzetan.

Langabeziako subsidioak eskuratzeko errentarik ez edukitzearen eskakizuna betetzat joko da eskatzaileak edo onuradunak hilean lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75 baino gehiagoko edozein motako errentarik ez duenean, aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kenduta.

Langabeziako subsidioak eskuratzeko, familia-erantzukizuntzat hartuko da ezkontidea, hogeita sei urtetik beherako seme-alabak edo adin nagusiko ezindiak edo harreran hartutako adingabeak kargura edukitzea, baldin eta horrela eratutako familia-unitate osoaren errenta, eskatzailea barne, hura osatzen duten kideen kopuruaz zatituta, ez bada lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75 baino handiagoa, aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kenduta. Ezkontidea, seme-alabak edo familian hartutako adingabeak ez dira haren kargura gisa hartuko, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75etik gorako edozein eratako errentak badituzte, aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kenduta.

Hala ere, badira egoera batzuk langabeziako prestazio kontributibo edo laguntzako prestazio bat jasotzearekin bateratu daitezkeenak, informazio-gida honetan azaltzen den bezala.

LANGABEZIAKO PRESTAZIO KONTRIBUTIBOA EDO LANGABEZIAKO SUBSIDIOA BATERAGARRIAK DIRA:

1 LANALDI PARTZIALEKO BESTEREN KONTURAKO LAN ORDAINDUAREKIN

Langabeziako prestazio kontributiboa edo subsidioa kobratzen ari bazara eta lanaldi partzialean besteren kontura lan egiten hasten bazara, bi aukera dituzu: prestazioa/subsidioa kobratzea etetea —kontratua indarrean dagoen bitartean— edo lana eta prestazioa/subsidioa kobratzea bateragarri egitea. Hala eginez gero, horren berri eman behar diozu etxetik hurbilen duzun Itsasoko Gizarte Institutuko Probintzia Zuzendaritzako prestazio-bulegoari.

Langabeziako prestazio kontributiboa edo subsidioa, eta lanaldi partzialeko besteren konturako lana bateragarri egitea erabakitzen baduzu, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda jarraitu beharko duzu, eta eskatutako eskakizunak betetzen jarraitu beharko duzu. Prestazioaren/subsidioaren iraupena

ez da aldatzen; hala ere, prestazio kontributiboaren edo subsidioaren zenbatekoa egiten duzun lanaldiaren proportzioan murriztuko da, eta lanaldi partzialagatik lortutako ordainsari gordinak errentatzat zenbatzeari kalterik egin gabe —urtean zehar ordaindutako aparteko ordainsarien zati proportzionala barne—, errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeko.

Langileak bere zerbitzuak lanaldi partzialean ematen jarraitzen duen bitartean, eta langabeziako prestazio kontributiboa edo subsidioa jasotzeko eskakizunak betetzen dituen bitartean, honako hau eskatu ahal izango du: hasi, utzi edo berriro bateragarri egitea.



“Langileak bere zerbitzuak lanaldi partzialean ematen jarraitzen duen bitartean, eta langabeziako prestazio kontributiboa edo subsidioa jasotzeko eskakizunak betetzen dituen bitartean, honako hau eskatu ahal izango du: hasi, utzi edo berriro bateragarri egitea.”


2 BESTEREN KONTURAKO LANALDI OSOKO LANAREKIN, ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMAREN BATEAN BATERAGARRITASUNA EZARRITA DAGOENEAN

Langabeziako prestazioa edo subsidioa jasotzea besteren konturako lanarekin bateratu ahal izango da, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboei zuzendutako enplegua sustatzeko programaren batek hala ezartzen duenean.

Kasu horretan, langabezia-babesa kudeatzen duen erakundeak prestazioen hileko zenbatekoa ordaindu ahal izango dio langileari, zehazten diren zenbatekoan eta iraupenean, Gizarte Segurantzako kotizazioa barne hartu gabe. Eta

enpresaburuak langabeziako prestazioaren edo subsidioaren eta dagokion soldataren arteko aldea ordaindu beharko dio langileari; halaber, Gizarte Segurantzaren kotizatzeako ardura izango du adierazitako soldata osoagatik, langabeziako prestazioaren edo subsidioaren zenbatekoa barne.

Enpresaburuak ordaindutako ordainsariak ez dira errenta gisa zenbatuko errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.



3 PRESTATZEN ARI DIREN LANGILEAK ORDEZKATZEKO PROGRAMA BATEN ESPARRUAN SINATZEN DITUEN LAN-KONTRATUEKIN


Enpresa guztiek bat egin ahal izango dute programa honekin, plantillaren tamaina edozein dela ere, betiere prestakuntza-ekintzak edozein administrazio publikok finantzatzen baditu.

Programa aplikatzea nahitaezkoa izango da langabeziako prestazioen edo subsidioen onuradun diren langile langabeentzat, betiere lana lanpostu egokitzaletan jartzen bada.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, langabeziako prestazio kontributiboaren edo subsidioaren % 50 jasoko dute kontratatutako langabeek, prestaziotik edo subsidiotik jasotzeko geratzen zaien denboraren bikoitza, gehienez ere.

Bateragarri egiten den prestazioa edo subsidioa jasotzen den aldian, enpresaburuak langileari ordaindu beharko dio langileak jasotako langabeziako prestazioaren edo subsidioaren zenbatekoaren eta dagokion soldataren arteko aldea; era berean, Gizarte Segurantzari kotizatzeiko ardura izango du adierazitako soldata osoagatik, langabeziako prestazioaren edo subsidioaren zenbatekoa barne.

Enpresaburuak ordaindutako ordainsariak ez dira errenta gisa zenbatuko errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.



“Enpresa guztiek bat egin ahal izango dute programa honekin, plantillaren tamaina edozein dela ere (...)”


4 GIZARTE-LANKIDETZAKO LANEKIN

Itsasoko Gizarte Institutuak langabeziako prestazioak jasotzen dituztenei gizarte-lankidetzako lanak egiteko eska diezaieke; lan horiek ez dute ekarriko langabeen eta hauek lan horiek egiten dituzteneko erakundeen artean lan-harremanik izatea, eta langileak dagokion langabeziako prestazioa edo subsidioa jasotzeko eskubidea izango du.

Itsasoko Gizarte Institutuak administrazio publikoekin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin itunak egitea sustatuko du. Itun horietan gizarte-lankidetzako lan horiek identifikatuko dira, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan. Nolanahi ere, honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Gizartearentzat erabilgarriak izatea eta komunitatearentzat onuragarriak.
- b) Aldi baterako izatea.
- c) Langabearen gaitasun fisikoekin eta prestakuntza-gaitasunekin bat etortzea.
- d) Langilearen ohiko bizilekua ez aldatzea.


Langabeziako subsidioaren eskatzaileak edo onuradunak gizarte-lankidetzako lanak egiteagatik jasotzen dituen zenbatekoak ez dira errenta gisa zenbatuko errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.



5 ARDURALDI PARTZIALA DAKARTEN ORDAINDUTAKO KARGU PUBLIKO EDO SINDIKALETAN HAUTAPENEZ EDO IZENDAPENEZ JARDUTEAREKIN

Dedikazio partzialeko kargu publiko edo sindikal bat betetzeko aukeratzen edo izendatzen bazaituzte eta kargu hori betetzeagatik ordaintzen badizute, bi aukera izango dituzu: prestazioa edo subsidioa kobratzea etetea — kargua betetzen duzun bitartean— edo prestazioa edo subsidioa arduraldi partzialeko karguan aritzearekin bateragarri egitea; baina kasu horretan, prestazioaren edo subsidioaren zenbatekotik murriztuko da dedikazio partzialeko denboraren zati proportzionala, eta lortutako ordainsari gordinak errentatzat zenbatzeari kalterik egin gabe, errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeko.

Toki-korporazio bateko kide gisa dedikazio eskusiborik edo partzialik izango ez bazenu, baina Korporazioko kide anitzeko organoen bileretara joateagatik ordainsaria jasoko bazenu, bertako osoko bilkuran adierazitako zenbatekoan, parte-hartze horien ordainketa eta langabeziako prestazioak edo subsidioak bateragarriak izango lirатеke, baldin eta benetako karguan aritzeak ez balizu eragotziko prestazioen edo subsidioen onuradun gisa dituzun betebeharrak betetzea. Eta lortutako eskuratze gordinak errentatzat zenbatzeari kalterik egin gabe, errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.




6 LAN-KONTRATUA AZKENTZEAGATIK DAGOKION LEGEZKO KALTE-ORDAINAREKIN

Lan-kontratua azkentzeagatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea baduzu, ordainketa behin bakarrean edo aldizka egingo den kontuan hartu gabe, legeko kalte-ordainaren zenbatekoa ez da errentatzat hartuko errentarik ez edukitzearen eta, hala badagokio, familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak zehazteko, eta, beraz, bateragarria izango da langabeziako prestazioarekin eta subsidioarekin.

Legezko kalte-ordainaren zenbatekotzat hartuko da Langileen Estatutuan lan-iraungitze mota bakoitzerako nahitaez ezarritako zenbatekoa, eta ezin izango da halakotzat jo hitzarmen kolektibo, itun edo kontratu baten arabera ezarritakoa, eta zerga-salbuespeneko arauak ez dira aplikagarriak izango.

Legezko kalte-ordaina gainditzen duen zenbatekoa errenta gisa zenbatuko da errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.

“Legezko kalte-ordaina gainditzen duen zenbatekoa errenta gisa zenbatuko da errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.”



7 SOZIETATE BATEKO BATZARRERA KONTSEILARI GISA JOATE HUTSAGATIK ZENBATEKOAK EDO DIETAK KOBRATZEAREKIN

Langabeziako prestazio kontributiboa edo subsidioa bateragarriak dira kontseilari gisa sozietate baten batzarrera joate hutsagatik zenbatekoak edo dietak kobratzearekin, baldin eta kargu horrek lan-jarduera bat egitea eskatzen duen beste eginkizunik ez badakar, eta lan-jarduera horrek Gizarte Segurantzako erregimenen batean nahitaez alta ematea ez badakar ere.

Horiguztia, errentarikez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeko jasotako zenbatekoak zenbatzeari kalterik egin gabe.



8 LANERAKO PRESTAKUNTZAKO EKINTZETARA JOATEAGATIK EDO IKASKETA-PLANAREN BARRUKO ERAKUNDE PUBLIKO EDO PRIBATUETAN PRAKTIKAK EGITEAGATIK LORTZEN DIREN BEKA ETA LAGUNTZEKIN, ERAKUNDE HORIEN ETA DAGOKION IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA-ESPARRUAN GERTATZEN BADIRA

Lortzen den beka edo laguntza baten onuradun bazara:

- Lanerako prestakuntzako ekintzetan parte hartu duzulako.
- Ikasketa-plana (curriculum-plana) osatzen duten erakunde publiko edo pribatueta praktikak egiteko; praktikak erakunde horien eta kasuan kasuko ikastetxearen arteko lankidetzaz-esparruan egiten direnean.
- Curriculumetik kanpoko praktikak egiteko. Praktika horiek, dagokion ikasketa-planean sartzen ez badira ere, Tituluaren Gehigarri Europarrean jasotzen dira, indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera.

Langabeziako prestazioarekin edo subsidioarekin bateragarria izan daiteke, baldin eta ez badute arduraldi eskusiborik behar, eta jasotzen duzun kontraprestazio ekonomikoa praktika horietara joateak dakartzan gastuak (materiala, lokomozioa, ostatua edo mantenua) konpentsatzera mugatzen bada, edo Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisisteman aurreikusitako lanerako prestakuntzako ekintzetara joateagatik edo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren funtsekin diruz lagundutako beste batzuen bidez lortzen bada.

Lortutako beka eta laguntza horiek ez dira errentatza hartzen, errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez; izan ere, laguntzak prestakuntza-praktiketan parte-hartzaileari eragindako gastuak (material-gastuak, lokomozioa, ostatua edo mantenua) baino ez ditu bete behar.

Enpresan prestakuntza-praktikak egitea ez bada bateragarria langabeziako prestazioekin eta/edo subsidioekin:

- Dagokion unibertsitate-titulua edo lanbide-heziketako titulua lortzeko beharrezkoak ez izateagatik.
- Dedikazio eskusiboa eskatzeagatik, eta horrek praktikak egiteko ikasleari eskatzen zaion jarduera-konpromisoa ikasle horrek betetzerik ez izatea.
- Prestakuntza-praktiketako parte-hartzaileak jasotako bekak edo laguntzak bere partaidetzak eragiten dizkion gastuen konpentsazio hutsa gaintitzen duelako, kasu horietan, langabeziako prestazio edo subsidio horiek eten egingo dira beka/laguntza ematen hasten den egunean.

Etenaldi horren ondoren, interesdunak bere eskubideari berriro ekitea eskatu ahal izango du, enpresan prestakuntza-praktikak amaitu ondoren edo, hala badagokio, beka amaitu ondoren, horren iraupena 360 egunetik gorakoa izan den ala ez kontuan hartu gabe. Eskaera hori egiteko, hamabost egun balioduneko epea izango du ikasleak, praktikak amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epez kanpoko eskaerak direnean, egun-kontsumoa aplikatuko da.

Aurrekoari kalterik egin gabe, prestakuntza-praktikek dedikazio eskusiboa eskatzen ez badute ere, ikasleak erabakitzen badu langabeziako prestazioarekin edo subsidioarekin bateragarri ez egitea, bere eskubidea eten ahal izango du, eta geroago berriz hasi, aurreko paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Merkataritzako Ontzidiaren titulu profesionalak lortzeko egiten diren ontziratzeengatik langabeziako prestazioak eta/edo subsidioak ere eten egingo dira, besteren konturako lan gisa hartzen baitira.

“Langabeziako prestazioak edo subsidioak jasotzea bateragarria da familia-prestazioarekin, modalitate ez-kontributiboan, hau da, ardurapeko seme-alaba bakoitzeko esleipen ekonomiko batean.”

9 EDOZEIN ADMINISTRAZIO PUBLIKOK EMANDAKO GUTXIENEO ERRENTAK, GIZARTE-SOLDATAK EDO GIZARTE-LAGUNTZAKO ANTZEKO LAGUNTZAK JASOTZEAREKIN

Edozein administrazio publikok emandako gutxieneko errentak, gizarte-soldatak edo gizarte-laguntzako antzeko laguntzak jasotzen badituzu, baita bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara ere, hori guztia langabeziako prestazioak eta subsidioak jasotzearekin bateratu ahal izango duzu, errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez horiek zenbatzeari kalterik egin gabe.

Mendetasun-egoeran dagoen pertsona baten zaintza ez-profesionalak guztiz bateragarriak dira langabeziako prestazioak eta subsidioak jasotzearekin, eta familia-ingurunean zaintzeko jasotako prestazio ekonomikoa ez da errentatzat hartzen ez subsidioaren eskatzailearentzat edo onuradunarentzat, ez familia-unitateko kideentzat.

10 ARDURAPEKO SEME-ALABA BAKOITZEKO DIRU-ESLEIPENAREKIN

Langabeziako prestazioak edo subsidioak jasotzea bateragarria da familia-prestazioarekin, modalitate ez-kontributiboan, hau da, ardurapeko seme-alaba bakoitzeko esleipen ekonomiko batean.

Zenbateko hori ez da errentatzat hartuko errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.



11 ERRETIRO PARTZIALEKO PENTSIOEKIN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIO EDO PRESTAZIO EKONOMIKOEKIN, BALDIN ETA PRESTAZIOA ERAGIN ZUEN LANAREKIN BATERAGARRIAK IZAN BAZIREN

Erretiro partzialeko pentsioarekin bateragarriak diren lanaldi partzialeko kontratuak galtzearen ondoriozko langabeziako prestazioak edo subsidioak jasotzea ere bateragarria da erretiro partzialeko pentsioarekin, errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeko errenta gisa zenbatzekari kalterik egin gabe.

Langabeziako prestazioa edo subsidioa eragin zuen lanarekin bateragarriak izan diren ezintasun iraunkorreko, zurtasuneko eta/edo alarguntzako pentsio bat jasotzen baduzu, langabeziako prestazio edo subsidio horiekin ere bateragarriak izango dira, errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeko errenta gisa zenbatzekari kalterik egin gabe. Ez da zenbatuko baliaezintasun handiko pentsio kontributiboaren gehikuntza, elbarriak bera artatzen duen pertsonari ordaindu ahal izateko erabiltzen dena, ezta

baliaezintasunagatik pentsio ez-kontributiboaren osagarria ere, % 75eko edo gehiagoko baliaezintasun-maila egiaztatzen denean eta bizitzako ekintza funtsezkoenak egiteko beste pertsona baten laguntza behar dela egiaztatzen denean ordaintzen dena.

Baldin eta zure alarguntza-pentsioa LGSren % 75 baino handiagoa bada gutxienekoen osagarria jasotzeagatik, baina zure pentsioak ez badu muga hori gainditzen osagarri hori kontuan hartu gabe, alargun-pentsioa eta langabeziako subsidioa bateratu ahal izango dituzu, betiere Itsasoko Gizarte Institutuaren (IGI) aurrean gutxienekoen osagarriari uko egiten badiozu. Gutxienekoen osagarriari uko egiten ez badiozu eta subsidioa jasotzen jarraitzen baduzu eta zure errentek LGSren % 75eko muga gainditzen badute, arau-hauste larria egin duzula ulertuko da, eta horrek subsidioa galtzea ekar dezake.

12 ESPAINIARRA EZ DEN ESTATU BATEK AITORTUTAKO ETA ORDAINDUTAKO PENTSIONEKIN

Beste herrialde bateko Gizarte Segurantzaren sistemaren konturako pentsio bat aitortua baduzu, langabeziako prestazioarekin edo subsidioarekin bateragarria izan daiteke, errenta gisa zenbatzekari kalterik egin gabe, errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.

Nolanahi ere, ez duzu Espainian erretiro-pentsio arrunta jasotzeko eskubiderik izango (erretiro-adina murrizten duten koefizienteak aplikatuta edo aplikatu gabe); izan ere, langabezia-babeserako eskubideak:

- Titularrak erretiro-adin arrunta betetzen duenean iraungitzen dira, salbu eta langileak horretarako eskatzen den kotizazio-aldia egiaztatuta ez duenean, edo kontratua eteten edo lanaldia murrizten denean.

- Gizarte Segurantzaren pentsio edo prestazio ekonomikoekin bateraezinak direnean, salbu eta horiek langabeziako prestazioa eragin zuen lanarekin bateragarriak izan badira.

- Eta 52 urtetik gorakoentzako langabeziako subsidioa jasotzeko, eskakizun guztiak bete behar dira, adina izan ezik, Espainiako Gizarte Segurantzaren sisteman kotizaziopeko erretiro-pentsio kontributibo mota oro eskuratzeko.

Komenigarria litzateke atzerriko erakunde eskudunari langabeziako prestazioaren edo subsidioaren aitortenaren berri ematea, baldin eta bere Gizarte Segurantzako sisteman egoera bateraezina bada Estatu horretan aitortutako eta ordaindutako pentsioekin.



LANGABEZIAKO PRESTAZIOEN BATERAGARRITASUNA:

• NORBERAREN KONTURAKO LANAREKIN

Kontribuzio-mailako langabeziako prestazioa jasotzen ari bazara eta zure lan-jarduera erabat eta behin betiko utzi baduzu, eta norberaren konturako langile gisa alta ematen baduzu, dagokizun prestazio kontributiboa jasotzen jarraitu ahal izango duzu, zure kontura lanean ari zaren bitartean, gehienez 270 egunez edo jasotzeko geratzen zaizun denbora laburragoan; baldin eta bateragarritasuna eskatzen baduzu norberaren konturako jarduera hasten duzun egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epe luzaezinean. Nolanahi ere, prestazioaren bateragarritasunerako eskubideak jarduera hori hasten duzun egunetik aurrera izango ditu ondorioak. 15 eguneko epe hori igarota, langileak ezin izango du bateragarritasun hori baliatu.


Prestazio kontributiboaren eta norberaren konturako jardueraren arteko bateragarritasuna eten egingo da besteren konturako lanaldi osoko edo partzialeko lan bat egiten bada.

Langabeziako prestazioa eta norberaren konturako jarduera bateragarriak diren bitartean,

prestazioaren onuradunari ez zaio eskatuko enplegu-eskatzaile gisa dituen betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 231. artikuluan aurreikusitako jarduera-konpromisotik eratorritakoak betetzea. Itsasoko Gizarte Institutuak eskatuta, agertzeko eta aurkezteko betebeharra izango dute, baldin eta zitazioaren helburua eskubidea eskuratzeko eta mantentzeko eskakizunak egiaztatzea bada.

Paragrafo honetan adierazitakoa aplikatu ahal izango zaie, halaber, langabeziako prestazioa jasotzen ari direnei eta sortu berri diren lan-sozietateetako bazkide gisa edo lan elkartuko kooperatiba sortu berrietako bazkide langile gisa sartzen direnei, baldin eta norberaren konturako jarduera dela eta Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian sartuta badaude.

Bateragarritasun horri heltzen dion langileak langabeziako prestazioaren zenbatekoaren % 100 jasoko du, PFEZaren deskontua aplikatuta, hala badagokio, eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kenkaririk gabe.



BATERAGARRITASUNETIK KANPO DAUDE:

- Norberaren konturako jarduera bat hasten dutenak edo lan elkartuko kooperatiba sortu berri batean edo lan-sozietate sortu berri batean sartzen direnak, Gizarte Segurantzako erregimenen batean norberaren konturako langile gisa alta eman gabe.
 - Norberaren konturako jarduera bat hasten dutenak edo jada eratuta dauden lan elkartuko kooperatiba batean edo lan-sozietate batean sartzen direnak, Gizarte Segurantzako erregimenen batean norberaren konturako langile gisa alta emanez.
 - Gizarte Segurantzako erregimenen batean norberaren konturako langile gisa alta ematen dutenak merkataritza-sozietate batean bazkide gisa sartzeko.
 - Azken enplegua beren kontura izan duten pertsonak, Gizarte Segurantzako erregimenen batean alta eman duten edo mutualitateren batean alta eman duten kontuan hartu gabe.
- Norberaren konturako jarduera hasi aurreko 24 hilabeteetan eskubide horretaz baliatu direnak.
 - Norberaren konturako jarduera hasi aurreko 24 hilabeteetan langabeziako prestazioaren ordainketa bakarra lortu dutenak.
 - Langile autonomo gisa alta eman eta beren jarduera profesionala gauzatzeko kontratu bat sinatzen dutenak enplegatzailearekin —baldin eta enplegatzaile horrentzako besteren kontura lan egin badute legezko langabezia-egoera hasi baino lehentxeago— edo enpresa-talde bereko enpresa batekin. Lan-sozietate edo kooperatiba-sozietate sortu berri batean sartuko diren langileei ere eragingo die baztertze horrek.

LANGABEZIAKO SUBSIDIOEN BATERAGARRITASUNA:

- **BESTEREN KONTURAKO LANAREKIN,
52 URTETIK GORAKO
LANGABEENTZAT**

Arau orokorrak ezartzen duenez, langabeziako subsidioa kobratzen ari bada eta lanaldi osoan besteren kontura lan egiten hasten bada, subsidioaren ordainketa eten egingo da, eta kontratua amaitzean aukera hauek egon daitezke:

- Kontratuak 360 egun baino gutxiago iraun badu, etenda zegoen subsidioa berriz jasotzeko eska daiteke.
- Baina subsidioa hasi zenetik kontratu gehiago izan badira, eta kontratu horien eta amaitu berri denaren artean 360 egun biltzen badira gutxienez, edo kontratuak 360 egun edo gehiago irauten badu, prestazio kontributibo bat eskatu behar da, etenda dagoen subsidioa berriz jasotzen hasi beharrean, langabeziako prestazio kontributiboa lehentasunezkoa baita.

Aurretik adierazitakoa gorabehera, salbuespen hau dago:

Oro har, langabeziako subsidioak eta besteren konturako lana bateratu ahal izango dituzte enplegu-bulegoetan izena emanda dauden eta edozein subsidioren onuradun diren 52 urtetik gorako langile langabeek, baldin eta lanaldi osorako, mugagaberako edo aldi baterako kontratatzen badituzte; aldi baterako kasuan, kontratuaren iraupenak hiru hilabetetik gorakoa izan behar du.

Ez da onartzen bateragarritasun-kasu hori laneratze-kontratuarekin, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak Nekazaritzako Enplegua Sustatzeko Programaren babesean diruz lagundutako kontratuarekin, ezta enpresa bateko zuzendaritza-karguei edo sozietatearen forma juridikoa duten erakunde edo enpresetako administrazio-organoetako kideei egindako kontratuekin ere.



Enpresa kontratatzaileak ez du baimenduta eduki behar lanaldia iraungitzeko, eteteko edo murrizteko Enplegu Erregulazioko Espedienterik, ezta azken hamabi hilabeteetan zu kontratatuta eduki izanda ere.

Enpresaburua, zuzendaritza-karguak dituzten pertsonak edo enpresaren administrazio-organoetako kideak ezin dira izan zure ezkontidea edo bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senitartekoa.

Kontratazioak bateragarritasuna eskatzeko ondorioak dituen arren, enpresak edo zuk aurkeztu behar duzue prestazioen bulegoan erregistratutako kontratua. Eskakizun guztiak betetzen direla egiaztatzen bada, onarpen-ebazpenaren jakinarazpen bat bidaliko zaizue zuri eta zure enpresari. Jakinarazpen horren bidez, subsidioa ordaintzen hasiko gara lanean hasten zaren egunetik, eta zenbatekoa % 50era murriztuko da.

“Arau orokorrak ezartzen duenez, langabeziako subsidioa kobratzen ari bada eta lanaldi osoan besteren kontura lan egiten hasten bada, subsidioaren ordainketa eten egingo da (...)”

Bateragarritasuna eragiten duen lanak ohiko bizilekuz aldatzera behartzen bazaitu, hiru hileko subsidioa ordainketa bakarrean ordaintzea eskatu ahal izango duzu kontratuari erantsitako dokumentuan.

Lana utziz gero, betiere langabeziako prestazio kontributiboa jasotzeko eskakizunak betetzen ez badira eta subsidioaren iraupena agortu ez bada, langileak lana utzi duela jakinarazi beharko du enplegu-bulegoan, hura gertatu eta hurrengo 15 egunen barruan, eta jarduera-konpromisoa suspertu beharko du, eta, kasurako eskatzen diren baldintzak betetzen badira, zenbateko osoagatiko subsidio hori lortuko da. Kasu horretan, eskubideari lotutako kontsumitu den alditzat hartuko da subsidioa eta lana bateragarri egin ziren aldiaren erdia.

Epearen barruan jakinarazten ez bada, lana utzi eta jakinarazten den egunaren artean pasatu diren subsidio-egunak galduko dira.


Lanagatik lortutako ordainsariak ez dira errentatzat hartuko errentarik ez edukitzearen edo familia-erantzukizunak izatearen eskakizunak betetzeari dagokionez.

“Bateragarritasuna eragiten duen lanak ohiko bizilekuz aldatzera behartzen bazaitu, hiru hileko subsidioa ordainketa bakarrean ordaintzea eskatu ahal izango duzu kontratuari erantsitako dokumentuan.”



ARAUDIA

- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena.
- 47/2015 Legea, urriaren 21ekoa, Itsasoko eta Arrantzako Sektoreko Langileen Gizarte Babesa Arazten duena.
- 20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Lan Autonomoaren Estatutuarena.
- 625/1985 Errege Dekretua, apirilaren 2koa, Langabeziagatiko Babesari buruzko abuztuaren 2ko 31/1984 Legea garatzen duena.



PROBINTZIA-ZUZENDARITZA	Helbidea	PK	Herria	Telefonia	Posta elektronikoa
ALACANT	C/ Faro de Santa Pola, 2	03001	Alacant	96 512 65 23	alicante.dirprovism@seg-social.es
ALMERÍA	C/ Puerto Pesquero, s/n	04002	Almeria	95 062 02 11	almeria.dirprovism@seg-social.es
ILLES BALEARS	C/ Moll Vell, 15	07012	Palma de Mallorca	97 172 56 06	illesbalears.dirprovism@seg-social.es
BARTZELONA	C/ Albareda, 1 - 13	08004	Bartzelona	93 443 96 00	barcelona.dirprovism@seg-social.es
BIZKAIA	Begoñako Andra Maria kalea, 32	48006	Bilbo	94 473 90 00	bizkaia.dirprov1.ism@seg-social.es
CÁDIZ	Avda. de Vigo, s/n	11006	Cádiz	95 625 17 03	cadiz.dirprovism@seg-social.es
KANTABRIA	Avda. de Sotileza, 8	39009	Santander	94 221 46 00	santander.dirprovism@seg-social.es
CARTAGENA	C/ Muelle Alfonso XII, s/n	30202	Cartagena	96 850 20 50	cartagena.dirprovism@seg-social.es
CASTELLÓ	Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n	12100	Castelló de la Plana	96 428 30 72	castellon.dirprovism@seg-social.es
CEUTA	C/ Muelle Cañonero Dato, 20	51001	Ceuta	95 650 02 40	ceuta.dirprovism@segsocial.es
GIJÓN	C/ Celestino Junquera, 19	33201	Gijón	98 532 72 00	gijon.dirprovism@segsocial.es
GIPÚZKOA	Otamendi Anaiaak kalea, 13	20014	Donostia	94 348 32 00	gipuzkoa.dirprovism@segsocial.es
HUELVA	Avda. Hispanoamérica, 9	21001	Huelva	95 925 74 11	huelva.dirprovism@segsocial.es
A CORUÑA	C/ Ramón y Cajal, 2	15006	A Coruña	88 190 98 00	acoruna.dirprovism@segsocial.es
LAS PALMAS	C/ León y Castillo, 322	35007	Las Palmas Kanaria Handikoa	92 849 46 45	laspalmas.dirprovism@segsocial.es
LUGO	C/ Rda. Músico Xosé Castiñeiras, 10 – bajo	27002	Lugo	98 222 50 10	lugo.dirprovism@segsocial.es
MADRID	C/ Churruca, 2	28004	Madrid	91 591 99 00	madrid.dirprovism@segsocial.es
MÁLAGA	C/ Pasillo del Matadero, 4	29002	Málaga	95 195 57 45	malaga.dirprovism@segsocial.es
MELILLA	Avda. de la Marina Española, 7	52001	Melilla	95 176 43 00	melilla.dirprovism@segsocial.es
TENERIFE	Avda. de Anaga, s/n	38001	Santa Cruz Tenerifekoa	92 259 89 00	tenerife.dirprovism@segsocial.es
SEVILLA	C/ Fernando IV, 1	41011	Sevilla	95 428 60 28	sevilla.dirprovism@segsocial.es
TARRAGONA	C/ Francesc Bastos, 19	43005	Tarragona	97 719 10 00	tarragona.dirprovism@segsocial.es
VALENTZIA	Av. del Port, 300	46024	Valentzia	96 335 99 00	valencia.dirprovism@segsocial.es
VIGO	Avda. Orillamar, 51	36202	Vigo	98 621 61 00	vigo.dirprovism@segsocial.es
VILAGARCÍA	Avda. de la Marina, 23	36600	Vilagarcía de Arousa	98 656 83 00	vilagarcia.dirprovism@segsocial.es



INFORMAZIO GEHIAGO

Web-orria



Egoitza elektronikoa



Deskargatu "ISM en tu bolsillo" aplikazioa



GIZARTERATZE, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Gizarteratze, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioaren
argitalpen-programan sartutako argitalpena (2/2020 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa)

Argitalpen honetan paper ekologikoa erabili da,
kontratazio publikoaren ingurumen-irizpideak jarraituz

<https://cpage.mpr.gob.es>



MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA